

Euskarabentura 2.mp3

Esataria: Zenbat kilometro egingo dituzue?

Neska: Guztira 783 kilometro dira. Aurreko urtean, kilometro horietatik 500 bat egin ziren oinez. Etapa bakoitza desberdina da, batzuk gogorragoak dira. Egunero 4 edo 5 ordu ematen ditugu ibiltzen, nahiz eta, batzuetan, eguraldia dela eta, etaparen bat bertan behera utzi behar izaten den. Horrelakoetan, autobusak alokatzen ditugu.

Esataria: Zer ibilbide egingo duzue?

Neska: Mauletik abiatuta, Donibane Garazira joango gara eta hortik Nafarroan sartuko gara. Hor dena lautada da, paisaia lehorragoa da. Nafarroa zeharkatu ondoren, autobusez Errioxara pasatuko gara, San Millan de la Cogollako monasterioa ikusteko. Handik Añanako gatzagetara joango gara. Gasteiztik pasa eta Agurain eta Zerain aldetik Gipuzkoara pasatuko gara, Ormaiztegi, Tolosa, Hernani eta Irunerako bidea eginez. Handik Baionara eta gero, pixkanaka, Gipuzkoako eta Bizkaiko kosta guztia egingo dugu, Getxoraino. Mendia, lautada, kosta... denetik dago.

Esataria: Ibilbidean zehar hainbat kontu ikasteko aukera izango duzue.

Neska: Bai. Iparraldeko laborariekin hitz egingo dugu, Nafarroako karlisten museoa bisitatuko dugu, Añanako Gatzagak ikusiko ditugu, Zeraingo meategietan burdinaren historia ezagutuko dugu, Eusko monetarekin egingo ditugu salerosketak, Irun eta Hendaiako mugan aspaldian emandako kontrabandoa deskubrituko dugu edota Gernikako Juntetxeko haritz zaharraren sinbologiari erreparatuko diogu. Eta, gainera, bidean lurralde bakoitzeko euskararen errealitatera hurbiltzeko parada ere izango dugu.